



AISIALDI

egitaraua

2024-2025

IKASTOLENTZAKO



zirimola
IKASTOLEN AISIALDI TALDEA





zirimola
IKASTOLEN AISIALDI TALDEA

Eskaerak eta izen-ematea:

www.zirimola.eus

943 44 51 08

zirimola@ehi.ikastola.eus

EGONALDIAK

- Alloko aterpetxea
LH 3-6 eta DBH 1-2
- Ur egonaldiak Zuhatzako uhartean
LH 5-6 eta DBH 1-2
- Eski alpinoa Aretten
LH 5-6, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa
- Ipar eskia Belaguan
LH 5-6, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa
- Surf egonaldiak Zarautzen
LH 5-6, DBH eta Batxilergoa
- Ipar-Hegoa trukaldia
LH 4- 5
- Bardeetako martxa
DBH 3

HARRERA ETA MURGILTZE-PROGRAMAK

- Pulunpa!
Emozioetatik euskaraz, murgiltze-programa.

Programazio
Berria!

FORMAZIOA

- Aisiola Hezitzaile Eskola
310 ordu | Batxilergoa
- Aisialdi Inklusiboa
8 ordu
- Jangelako eta eskolaz kanpoko langileentzako formazioa
6 ordu
- Euskara sustatzeko jolas eta jokoen saioak
2 ordu

EMAN HEGOAK URTEAN ZEHAR

- Negulekuak
HH 3 - LH 3
- Udaberrilekuak
HH 3 - LH 3

ALLOKO EGONALDIAK

Tahona Ikastolen Aterpetxean

LH 3-6 eta DBH 1-2



ZER DA?

Euskararen sustapena eta naturarekiko harremana garatzeko aisialdi hezitzailea oinarri duen hiru eguneko (bi gau) egonaldia.

NON?

Allo-n (Lizarraldea) Ikastolen Elkarteak duen Tahona aterpetxean.

NOIZ?

Udazkenean (iraila-urria) eta udaberrian (maiatza-ekaina).

PREZIOA

- Gau bat: 69 €/hour
- Bi gau: 95 €/hour

IZEN-EMATEA

- Udazkeneko egonaldirako: 2024ko ekainaren 28a arte.
- Udaberriko egonaldirako: 2024ko urtarrilaren 31a arte.

Bi eguneko (gau bat) eta aste osoko egonaldiak ere antolatzen ditugu.

UR EGONALDIAK

Zuhatzako uhartean

LH 5-6 eta DBH 1-2



ZER DA?

Hiru eguneko (2 gau) egonaldia. Ur ekintzekin eta orientazio, iluntasun, oreka eta bertikaltasun jolas eta jokoekin taldean gozatzeko aukera natur ingurunean.

NON?

Zuhatzako uhartean.

NOIZ?

Udazkenean (iraila-urria) eta udaberrian (maiatza-ekaina).

PREZIOA

- Gau bat: 75 €/pertsonako (ikasle zein irakasle).
- Bi gau: 115 €/pertsonako (ikasle zein irakasle).

IZEN-EMATEA

Egonaldiaren data baino urtebete lehenago.

ESKI ALPINOA

Egonaldiak **Aretten**

LH 5-6, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa



ZER DA?

Eski teknikaren hastapen eta trebakuntzarako jarduerekin gozatzeko egonaldia. Aisiolako hezitzaileekin izango dituzte ikastaroak eta baita afal osteko gaubela ere.

NON?

Arette-ko eski estazioan (La Pierre de Saint Martin, San Martingo harria). Aterpetxea Maulen (Zuberoa).

NOIZ?

Urtarrila, otsaila eta martxoan.

ZEHAZTASUNAK

Eski alpinoa. Egun bakoitzean 2 orduko eski ikastaroa gure hezitzaileekin. Bi egunetako materialaren alokairua (eskiak, botak, makilak eta kaskoa). Pistetako sarrera-forfaita (2 egunekoa). Bi egunetako pistetako asegurua (hautazkoa). Aterpetxea Maulen (afaria, loa, gosaria eta egun bateko piknik-a). Afalosteko gaubela gure hezitzaileen eskutik.

PREZIOA

2024ko urrian/azaroan aurrekontua eskatu.

IZEN-EMATEA

2024ko urrian eta azaroan.

Egun bakarreko, hiru eguneko edota gehiagoko irteerak ere antolatzen ditugu.

IPAR ESKIA

Egonaldiak **Belaguan**

LH 5-6, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa



ZER DA?

Eskiaren beste diziplina bat ezagutzeko aukera ederra, Euskal Herriko naturgune paregabe batean.

NON?

Erronkariko eski zentroan, Belaguan. Belaguako mendi aterpean egingo dute lo.

NOIZ?

Urtarrila, otsaila eta martxoan.

ZEHAZTASUNAK

Ipar eskia edo erraketak. Egun bakoitzean 4 orduko eski saioa bertako irakasle euskaldunekin. Materialaren alokairua (2 egunekoa). Pistetako sarrera-forfaita (2 egunekoa). Pistetako aseguruia (2 egunekoa). Aterpetxea Asolaze-ko kanpinean (bungalow-ak).

PREZIOA

2024ko urrian/azaroan aurrekontua eskatu.

IZEN-EMATEA

2024ko urrian eta azaroan.

Egun bakarreko, hiru eguneko edota gehiagoko irteerak ere antolatzen ditugu.

SURF EGONALDIAK

Egonaldiak Zarautzen

LH 5-6, DBH, Batxilergoa



ZER DA?

Surfaren munduan oinarritzen den bi egunetako (gau bat) egonaldia. Axi Muniain Surf Eskolarekin egingo dituzte ikastaroak.

NON?

Zarautzen, Igerain aterpetxean.

NOIZ?

Udazkenean (iraila-urria) eta udaberrian (maiatza-ekaina).

PREZIOA

95€/hur.

IZEN-EMATEA

- Udazkeneko egonaldirako: 2024ko ekainean.
- Udaberriko egonaldirako: 2024ko iraila-urrian.

IPAR-HEGOA TRUKALDIA

Ikastolen arteko egonaldia Allon

LH 4-5



ZER DA?

Euskal Herriko lurralde ezberdinetako ikasleen topagune izan nahi du Trukaldiak, herri bakoitzeko euskalki, ohitura, kultur adierazpen eta sormenaren kokaleku.

NON?

Allo-n (Lizarraldea) Ikastolen Elkarteak duen Tahona aterpetxean.

NOIZ?

Ikasturte bukaeran (ekainean).

PREZIOA

95€/hour.

IZEN-EMATEA

2024ko iraila-urrian.

**Parte-hartzea hautaketa prozesu baten baitan.*

BARDEETAKO MARTXA

Orientazioa eta Bizikleta Martxa, Nafarroan

DBH 3



ZER DA?

Euskal Herriko ikastola ezberdinetako ikasleen egonaldia, Tuterako orientazio-proba eta Bardeetako bizikleta martxaz lagun berriak egiteko aukera paregabea.

NON?

Bardean eta Tuteran (Argia Ikastolan lo).

NOIZ?

2 egun eta gau bat, maiatzaren hasieran.

PREZIOA

45€/haur.

* 2024ko prezioa. 2025eko aurrekontua eskatu iraila/urrian.

IZEN-EMATEA

2024ko iraila-urrian.

* Parte-hartzea hautaketa prozesu baten baitan.

EMAN HEGOAK URTEAN ZE HAR

Negulekuak eta Udaberrilekuak ikastoletan

HH 3 - LH 3



ZER DA?

Zirimolak garatutako programa, udaleku irekiaren formatuan. Ikastolan burutzen da, oporraldi ludikoa eskaintzeko asmoz eta kontziliaziorako zerbitzu bezela.

NON?

Norbere ikastolan.

NOIZ?

Neguko eta udaberriko oporretan.

PREZIOA

Egun kopuruaren arabera. Aurrekontua azaroan eta otsailean eskatu.

IZEN-EMATEA

- 2024ko Urria-azaroan Negulekuetarako.
- 2025eko Otsailean Udaberrilekuetarako.

PULUNPA!

Emozioetatik euskaraz

Harrera eta murgiltze-programa

Programazio Berria!



ZER DA?

Gazteen artean euskara sustatzeko zortzi egunetako programa, ikastolan bertan egiten dena aisialdiko hezitzaileekin.

NON?

Ikastolan bertan.

NOIZ?

Ikasturte hasieran hiru edo bost eguneko programa gauzatuko da. Ikasturtean zehar egun bakarreko beste saio guztiak egingo dira, programaren kohesioa ikasturte hasieratik bukaera arte mantenduz.

HEZITZAILE TALDEA

Ikastolen Elkarteko teknikariak.

PREZIOA

1.025€/taldeko.

IZEN-EMATEA

2024ko ekainean.

AISIOLA

Hezitzaile eskola

Batxi 1 eta 2



ZER DA?

Aisialdiko hezitzaileak prestatzeko ikastaroa. Eredu ez-formalean lanean aritzeko derrigorrezkoa den titulazioa lortzen da.

NON?

Ikastolan bertan.

NOIZ?

Ikasturtean zehar. 3 modalitatetan egin daiteke: 2 ikasturtetan, 1 ikasturtean eta era trinkoan.

IRAUPENA

150 ordu teoriko eta 160 ordu praktiko.

FORMATZAILE TALDEA

Aisiola Hezitzaile Eskolako formatzaile esperientziadunekin.

PREZIOA

- Ikastolako ikasleak: 430 €
- Ikastolako ikasle ez direnak: 450 €

IZEN-EMATEA

2024ko ekainean.

Zuzendari Ikastaroa ere antolatzen dugu.

AISIALDI INKLUSIBOA

Irakasle eta hezitzaileentzako ikastaroa

Formazioa



ZER DA?

Ikastolako aisialdi gune eta uneetan aisialdi inklusiboa dinamizatzeko ikastaroa. Bertan landuko dira: gutxiagotutako hizkuntza eta kultura baten testuinguruan kulturartekotasunaren begirada eta euskararen sustapena; eta, baita aniztasun funtzionalak eskaintzen dituen aukerak ere.

NON?

Ikastolan bertan.

NOIZ?

Ikasturtean zehar.

IRAUPENA

4 orduko 2 saio (8 ordu).

FORMATZAILE TALDEA

Pedagogoak. Aisialdian, gutxiagotutako hizkuntzen sustapenean eta inklusioan espezializatuak.

PREZIOA

400€/taldeko (10-15 pertsonako taldeak).
* *Fundae-tik finantzatzeko aukera*

IZEN-EMATEA

Udazkenerako: 2024ko ekainean.

JANGELAKO eta ESKOLAZ KANPOKO

Hezitzaileentzat

Formazioa



ZER DA?

Eguerdiko denbora librean kudeatzeko estrategia zein metodologia desberdinak proposatuko diren ikastaroa. Hezitzaileek lehenengo pertsonan biziko dituzte proposamen hauek, denbora, materiala, espazioa, hizkuntza eta bestelako kontzeptuak oinarri edukiz.

NON?

Ikastolan bertan.

NOIZ?

Ikasturtean zehar.

IRAUPENA

Bi orduko hiru saio, guztira 6 orduko formazioa.

FORMATZAILE TALDEA

Ikastolen Elkarteko teknikariak.

PREZIOA

300€/taldeko (15 pertsonako taldeak).

* *Fundae-tik finantzatzeko aukera*

IZEN-EMATEA

2024ko ekainean.

EUSKARA SUSTATZEKO JOLAS eta JOKOEN SAIOAK



ZER DA?

Dinamika ezberdinen bitartez euskararen erabilera sustatzeko saio parte-hartzaileak. Jolas eta jokoak oinarri hartuz, ahozotasuna eta entzumena landuko ditugu.

NON?

Ikastolan bertan.

NOIZ?

Ikasturtean zehar.

IRAUPENA

Bi orduko saioak.

FORMATZAILE TALDEA

Ikastolen Elkarteko teknikariak.

PREZIOA

120€/taldeko.

IZEN-EMATEA

- Udazkenerako: 2024ko ekainean.
- Negurako: 2024ko urrian.
- Udaberrirako: 2024ko urtarrilean.



zirimola
IKASTOLEN AISIALDI TALDEA